

## Funtsezko baliabideak

Gure enpresa martxan jartzeko hainbat funtsezko baliabide beharko ditugu.

Hauek ondorengo kategoriatan sailkatu ditugu:

- Baliabide fisikoak
  - Gure produktuak egiteko eta saltzeko **lokal** bat. Enpresa txikia denez eta 5 langileko eskulana dagoenez lokala txikia da.



- 5 josteko makina, jantziak egiteko.
- Jantziak egin ahal izateko materiala: ehunak, hariak, orratzak, etab.
- Materiala lantzeko azalera: mahaiak, aulkiak, pertxak, etab.
- Baliabide intelektualak
  - Madrileko “Centro Superior de Diseño de Moda” unibertsitatean ikasitako 2 langile.
  - Bartzelonako “Escuela Superior de Diseño e Ingeniería” unibertsitatean ikasitako 3 langile.
  - “Maestros de la costura” irabazitako langile bat.
- Giza-baliabideak
  - 5 fundatzaile/langile
  - FP DUAL-eko ikasleak
- Finantza-baliabideak
  - **Sarrerak:**

Bi motatako sarrerak aurkituko ditugula pentsatzen dugu negozioa garatzen doan heinean:

1. ordainketa bakarraren bidezko sarrerak, hots, bezeroak aldi bakarrean

egindako ordainketatik eratortzen direnak:

- **Produktuen salmenta:** gure produktuak dendan saltzean lortuko ditugun irabaziak.
  - **Arropa pertsonalizatzeagatik (neurri espezifikoak):** arropa zenbait neurritara moldatzeko aukera eskaintzen dugu, bezeroa ongi datorkion neurririk aurkitzen ez duen kasuan.
2. ordainketa errepikarien bidezko sarrerak, alegia, zerbitzu edo produktu jakin bat erabiltzeko ala salmenta ondorengo euskarriaren truke bezeroak modu jarraian egiten dituen ordainketetatik eratorritakoak:
- Nahiz eta arropa denda baten horrelako kasurik aurkitu ezin izan, baliteke bezero batzuk gure dendarekiko interesa sortzea eta honek gure produktuak maiz erosten hastea. Bezero horientzako, txartel berezi batzuk sortuko ditugu (10 produktu erosi ondoren) beherapen batzuekin, hauen fideltasuna irabazteko asmoz.

Horrez gain, hauek dira hasiera batean negozioa garatzen lagunduko dizkiguten kapitalak:

- **50.000€ “Maestros de la costura” programan irabazitakoak:** jakin bezala, enpresaren bost sortzaileak izan ginen programa horretako parte-hartzaileak. Gutako batek saria irabazi zuenez, 50.000€-ak (lortutako saria) proiektu honetan inbertitzea erabaki genuen. Halere, besteok ere dirua inbertitu genuen.
- **Diru laguntzak:**
  - EMEKIN laguntza: emakume ekintzaileak izateagatik eskatu dezakegun laguntza da.
  - **Enpresa Berria Sozietate Mugatua** sortzeagatik Eusko Jaurlaritzak emango dizkigun diru-laguntzak (enpresa berria izateagatik)